

EGINKIZUNAK

Ez dira berdiñak gizonen eginkizunak
Gizonak ere berdiñak ez dira ta.

Arotz, argiñ eta igeltzeroen lanak ez dira zenbait diru-echeko gizonen antzekuak

Bañan On Zirilo Eltzaurdi'k On Zilipurdi'k, inguruko jendiak deitzen dioten bezela aukeratzen ditunak, iñork ez bezelakuak izaten dira.

¿Nork ez du On Zilipurdi ezagutzen?

Gizon lodi lodi bat, musu gorriya, bi kanaterdi luzeko oñetakuak ibiltzen ditu, ta sabel gañian berriz kate lodi bat, bilin-balan chilborra minberatzeko zoriyan.

Beti presaka, beti izarditan. ¡Eginkizunak! Gizona ez da geldirik egoteko jayua. Geldirik egon ta ez dago ezer. Ala esaten ditu On Zilipurdi'k.

Dirua erruz izan biar du. Bañan buru auzketak eginkizunak geyago oraindik.

Ezertarako cholarterik arrapatu ezin dula bizi da gizarajua bere eginkizunakin.

¿Zer eginkizun ordia?

Donostiya'n ez da eche bat salduko On Zilipurdi lenbiziko erostun agertuko ez danik

Dala erritik kanpuan, dala erri barrenian, chikiya ala aundiya, jau-regiya edo lan-tokiya, ez diyo ajolik; bera da beti lenbiziko agertzen dana.

Gero jua ta etorri batera ta bestera, goitik bera echia ikusi, batekin egon, bestiakin itzezin, paper morduak ugari jirabiratu, illiak arraskatu ondo, sudurrari teinkazo bat eman.....

Eta oraindik ezerchore erosi dubenik ez det beñere entzun

Baña On Zilipurdi'ren eginkizun amai gabekoak ez dira eche erosketako jua etorriyak bakarrik. Beste edozein erosketa berdin diyo.

Edozer gauza dala, salmentako usaya ulertzen dunerako an dijua lertzelto zoriyan gure On Zilipurdi, sabel gañeko katiak bilin-balan egiten diyola.

Dirala urre ta zillarrezko pitši aberatsak, dala bakallao pilla, dana dala, erosteko gauza izan ezkeru, gure gizona an dabill danaren jabe egin biar balu bezela.

Eta azkenian maratillen bat arkitzen du ezerchore erosi gabe alde egiteko.

Bañan eginkizunak, egunetik egunera aundiagoak dira On Zilipurdi'rentzat

—Orain ere badijua beorri lazterka biziyen, esaten diyo ateondoko zapatagilliak.

—Geldirik egon ta ez dago ezer.

—Ez nozki: orla ibilli biar da, orla..... (zapatagilliak lanik izango badegu).

Kayian, arrantzako bapore bat saltzeko zegola ziyoten. Usandu zunerako gure On Zilipurdi'k an zan, kayian ziran bapore guziyak ikusten.

Esan ziyoten zein bapore zan ta kanpo ta barren, goitik eta betik, aurretik eta atzetik, alde guzietatik, begi, biatz eta sudur ikusi zuben egun batian eta bestian ta urrenguan.

Azkenian urtara erori zan ta atera zuten iya ituan..... ordu erdi bat baño len an zan ordia berriz soñekua aldatuta.

Arkitu zan bapore jabiarekin, ta onla itzezin zuten:

—Beaz saldu egin nai dezula nozki arrantzako bapori ori, e?

—Ala diyote ta ala da nere asmua

—Eta ¿nola ibiltzen da?

—¿Baporía? Ur gañian.

—Ez det ori esan. Galdetu nai nizun azkarra dan.

—¿Azkarra? Bai azkarra bezela ere. Ara: atera dedilla Donosti'tik gau illun bateko amarretan ta amabiyetako Machichako'n da.

—Orduban ez nezake zure baporía erosi:

—Zergatik?

—¿Zergatik? Gabeko amabiyetan zer nai dezu zuk nik Machichako'negitia.

A. DARRA